

## **AGENDA 2010-2011ren bitartez, Bizkaiko 20 udalerrrik abian jarriko dute Lehen Hezkuntzan euskara sustatzeko kanpaina berria.**

Agenda 2010-2011 ekimenari esker Bizkaiko 6400 gaztetxok euskara beraien eguneroko bizitzan erabiltzen jarraituko dute beraien etxeko lanak apuntatzeko eta beraien aisialdirako ekintzak. Aipatutako kanpaina Alkarbide bilguneko kide diren hainbat udalek sustatu dute.

Guztira Bizkaiko 11 udalerrrik eta mankomunitate batek parte hartu duten kanpaina honen hartzailleak Lehen Hezkuntzako gaztetxoak dira, hau da, 6 eta 12 urte bitartekoak. Ondokoak dira zehatz-mehatz ekimen honetan parte hartuko duten tokiko erakundeak: Arrigorriaga, Balmaseda, Bermeo, Enkarterriko Mankomunitatea, Etxebarri, Galdakao, Muxika, Mundaka, Laukiz, Maruri-Jatabe, Ortuella eta Zierbena.

Eskeletan banatuko den agenda hau Galdakaon hasi zuen ibilbidea orain dela urte batzuk. Geroxeago Arrigorriaga eta Etxebarri ere parte hartu zuten ekimenean eta ikasturte honetan 20 udalek banatuko dute. Agendako ardatz nagusia Anbotoko Mari da, Bizkaiko irudi mitologikorik ezagunena. Akerbeltz bere lagunarekin batera ekimenean parte hartu duten herrietatik zehar ibiliko dira hilabetez hilabete udalerrri horietako historia ipuinen bitartez kontatzeko. Herri bakoitzean lagun bat topatuko dute herri horretako historia zati txiki bat kontatzeko: Bermion Xixili, Muxikan Balendin Enbeita, Mundakan surflaria, Enkarterrin korrejidorea, Balmasedan Amaia, Arrigorriagan Mika, Galdakaon Mozolo eta eta Lamia, Etxebarrin Kuku, Laukizen Lauaxeta, Maruri-Jataben paisaia, Ortuellan Antonio eta Zierbenan arraunlariak.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta ekimenean parte hartzen duten udalek diruz lagundutako agenda hau kolorez eta jolasez beterik dator. Testua Antton Irusta haur literaturako idazleak egin du eta ilustrazioak Enrique Morente marrazkilariak.

Agenda ikasturte hasieran banatu egingo zaie honako ikastetxeetako gaztetxoei: Arrigorriagako herri ikastetxea, Balmasedako Mendia ikastetxea eta Zubi Zaharra ikastola, Bermeoko San Frantzisko herri ikastetxea, Luis de Eleizalde ikastola eta Sagrado Corazón ikastetxea, Artzentalesko Angel Larena ikastetxea, Gordexolako Eduardo Eskartzaga ikastetxea, Karrantza Haraneko Concha ikastetxea, Sodupeko Avellaneda eta Eretza ikastetxeak, Sopuertako San Viator ikastetxea, Turtziozko Jose Sierra ikastetxea, Zallako Maristas-San Miguel eta Mimetiz ikastetxeak, Etxebarriko San Antonio eta J.M. Barandiaran ikastetxeak, Galdakaoko Aperribai, Unkina, Gandasegi, Urreta ikastetxeak eta Eguzkibegi ikastola, Laukizko Lauaxeta eskola,

Mundakako eskola publikoa, Muxikako Urretxindorra eskola publikoa eta Ortuellako San Felix ikastetxea.